

AUTOKARABANAK ETA ETXEBIZITZA-IBILGAILUAK IRUÑEKO AUTOKARABANETARAKO ZERBITZUGUNEAN APARKATU ETA GAUA EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

15. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. saileko 2. azpisailean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga-egitatea da Trinitarioseko aparkatze-eremuaren barruan dagoen autokarabanak edo etxebizitza-ibilgailuak aparkatzeko gunean zerbitzuak ematea, segurtasuna bermaturik hala erabiltzaileei nola Iruñeko herritarrei.

Ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- Zerbitzuaren onuradunak beharturik daude Arau honetako prezio publikoak ordaintzera.

Sortzapena eta Ordainketa

4. artikulua.- Prezio publiko honen sortzapena dagokion baimena ematen denetik aurrera sortuko da, eta ordainketa Zerbitzugunean xede horretarako jarritako makinetan eginen da, edo, bestela, horretarako gaitutako aplikazio telematikoaren bidez.

Tarifak

5. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen eranskinean aurreikusitakoaren arabera zehaztuko dira, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

TARIFA-ERANSKINA

- Uztailaren 5etik 15era (biak barne) aparkatzeagatik	20,40 € eguneko edo horren zatiki bakoitzeko
- Urteko gainerako egunetan aparkatzeagatik	10,20 € eguneko edo horren zatiki bakoitzeko
- Urak hustutzeagatik	2,04 €